

# Enbata

HEBDOMADAIRE  
POLITIQUE BASQUE  
7 novembre 1991  
N°1200  
6,00 F

Errefuxiatuen eguna  
dimanche à Ezpeleta



Hazi hurritik  
Uzta hurri,  
Eta hazi nasaitik  
Uzta nasai.

2 Kor 9.6

# L'hymne à la vie

*Sur les pentes de la Rhune, dimanche dernier 3 novembre, les amis de Maurice Abeberry ont rencontré les sculptures rupestres que Pantxo Saint-Esteben a gravées à même la montagne, là où il s'est affaissé, le 21 février 1988. Moment fort, où la seule parole fut donnée à celui dont l'oeuvre originale, jaillie d'une pierre difficile, fixera désormais ce lieu du souvenir. Alors que chacun s'en retournait, le site retrouvant sa sérénité, un ancien réfugié planta un if, l'arbre millénaire.*



**A**VEC ce mélange d'humour, de passion et de bonhomie qu'il affectionne, Pantxo Saint-Esteben a fait les honneurs des lieux et présenté sa fresque rupestre. Suspendu au-dessus de la Côte basque, mu par le verbe et par les ciseaux, qui mieux que lui sait faire frissonner les images et les symboles dans ce paysage d'une beauté hauturière ? Ce jour-là sur la Rhune, "la nature était un temple où de vivants piliers laissaient parfois sortir de confuses paroles. L'homme y passe à travers des forêts de symboles qui l'observent avec des regards familiers. Comme de longs échos qui de loin se confondent dans une ténébreuse et profonde unité..."

## Harriak eta gizonak

**B**at georgiarra da, bestea euskalduna. Bi herri anai, Georgia eta Euskal Herria, bi gizon, bi anai iduri. Gorputzez, itxura eder eta sano eta izaitez, indartsuak, azkarrak. Bihotzez, biak lurraren eta gizonaren maitale handi dira. Biak, bere herriaren langile, zerbiltzari eta lekuko. Bakoitzak bere herriko hizkuntza mintzatzen du eta gorensten, kantatzen. Bakoitza bere xokoan, bere herriko mendi, aran, erreka, oihan, ihaztoka, harpe eta inguru guztiak miatu ditu. Georgiarra eta euskalduna herrez herri ibili dira, beren herritarrak kusten, mintzatzen, ezagutzen, beren baitako funtsa hazteko eta mamitzeko. Georgiarrak, Euskal Herriko kostaldean zenbait astez egon eta lan egin du. Euskalduna aldiz, argazki, idatzi, olerki, irratsaio edo telebista bidez, agian Georgiatik iragan da. Bata bestea bezala loriatu dira, bestearen herria doi bat bederen hurbildurik, nolazpait perekatzeko bezela paradatxo bat ukanik. Baina huts bat handia ba da ixtorio honetan eta hau da : ni gaur bi hauen biziak konparatzen, hots, biak elkartzten saiatzen banitzaizu, bien bideak ez dira, nik dakidanaz, zoritxarrez egitan kurutzatu, ez eta ere juntatzeko asmotan suertatu. Georgiarrak, bere herriko mendi horren gainetik jautsi omen da gure eskualdera bisitatxo bat, jinjoantto bat egitera. Eta beharbada, bera bezalako Euskaldun bat bazela jakin gabe ere, bere mendi gainean bertako arkaiz eta harriak lantuz, bere herriko hitorioaren grabatzera, zizelkatzera itzuli da.

Djermal Bjalava georgiarra, bere biziko obra nagusi hau egiten, zenbait urte hauetan mendiko harriek Georgia konda dezaten kiski eta kaska ari da. Batean harria etsai, bestean gizona adixkide, jo eta pereka, harria eta gizonak ezin balute bategin bezala... Alta,

Larrun gaineko Ziskoitz lepo ondora hurbiltzen bazara, han, maldaño hortako iratze artean, gizon bat bizkarrez lanean ari ikusiko duzu. Zizelkaria da, eskultorea, bertako harriak pikatzen, hezten, mendiko harria iratzarrazi, berpiztuarazi, mintzarazi nahiz, tin-tin-tin-



tin mailu eta zizelekin. Hau da delako Euskalduna : Pantxo Saint-Esteben, Azkaineko Uztariztarra, «Ziskoitz lepoko harri iratzartuak» obra burutatzen ari. Heldu den igandean, toki hortan berean, pilotazale suharrak, abokat zintzo izana, eta mendialde hortan bere

azken hatsa bota zuen Maurice Abeberri jaunaren ohoretan, bilduko bait gara... harriak eta gizonak. Eta bide batez, bi gizon, bi artisen hitzordu eta juntatzea, ez bazen duela bi hilabete leku hortan funtsez egin, izpirituz, gogoz, amets eroez bederen igandean egin dadila, gu lekuko eta harriak bitarteko, mendi gainean hor izanen garena...

Ikusiak ikusi eta, erranak erran...

Lekuine, 1991.ko urriaren 30a.

Koldo Amestoy

## La brise et le roc

■ Hier nous inaugurons les sculptures à la mémoire de Maurice Abeberry. J'étais en retard, là-haut, venue par le petit train de la Rhune, mais ce fut facile de dévaler les quelques mètres à travers les chênes et les fougères, pour arriver là où le sculpteur a gravé l'adieu de notre ami. Le tableau était surprenant, sculptures parmi les sculptures, nous étions partie intégrante du décor. Nous étions cette âme basque que Saint-Esteben a creusée dans les pierres millénaires. Le poète racontait à travers la fine brise, entouré d'une écoute fascinée. L'autre, le regard au loin, mouillé, parcourait les pentes s'éloignant vers Saint-Jean de Luz. D'autres parlaient de Maurice, ou parlaient au roc le roc leur répondait. Oui, Maurice était vivant dans cette nature ; il était nous et nous étions lui. Voilà ce que j'ai ressenti, voilà ce que le poète sculpteur a réussi à créer.

Arrosa